concurso convocado por el Teatro Arriaga, para la contratación de las OBRAS PARA
LA RECONVERSION DE LA INSTALACION Y LA PUESTA EN MARCHA DEL NUEVO
SISTEMA DE CLIMATIZACION DEL TEATRO ARRIAGA.

DECLARO BAJO MI RESPONSABILIDAD:

1º) Que me comprometo a la ejecución de este contrato por el precio de
.....euros, al que se aplicará el IVA correspondiente
del% con un importe de euros de IVA, siendo por tanto
el precio total de euros, y en el plazo de
..... (póngase en letra y número).

Se comprenden incluidos en este precio todos los conceptos incluyendo los
impuestos, gastos, tasas y arbitrios de cualquier esfera fiscal al igual que el
beneficio industrial del contratista.

2º) Que conozco el Proyecto y el Pliego de Cláusulas Administrativas y
demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente
asumo y acato en su totalidad.

3º) Que la empresa a la que represento, cumple con todos los requisitos y
obligaciones exigidos por la normativa vigente para su apertura, instalación y
funcionamiento.

En....., a.....de.....de.....
Fdo.

Sello de la empresa

ARRIAGA ANTZOKIKO GIROTZE INSTALAZIOA BERRITZEKO ETA SISTEMA BERRIA ABIARAZTEKO LANEN ADMINISTRAZIO KLAUSULEN AGIRIA.

I.- KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA.

Ondorengo dokumentazioak osatzen duen GIROTZE INSTALAZIOA BERRITZEKO 2014KO URTARRILAREN PROIEKTUAREN arabera Arriaga antzokiko girotze sistema berria instalatu eta abiarazteko behar diren lanak dira agiri honetan oinarrituta egiten den kontratuaren xedea:

- Oroitidazkia.
- Kalkuluak.
- Baldintzen agiria.
- Erabiltzeko eta mantentzeko baldintzak.
- Zehaztapen teknikoak eta aurrekontua.
- Lanak egiteko planoak.
- Zihurtasun eta osasunen agiria.

Dokumentazio hori dosierrean dago eta kontratu izaera izango du.

Egin beharreko lanak kontratatzeko administrazio baldintzak ezartzea da agiri honen helburua, izan ere, kontratuaren xede diren lan eta instalazio guztiak erabat eginda, burututa, funtzionamendu egoera akatsgabea eta aplikatu behar zaizkien erregelamendu, ordenantza eta arauak beteta eta betetzeko moduan eman behar dizkio, hitzartutako epean, enpresa esleipendunak Arriaga antzokiari.

2. EGITEKO EPEA.

Kontratua betetzeko epea **HIRUROGEI EGUTEGI EGUNEKOA** izango da, 2014ko ekainaren 2an hasi eta beranduenik 2014ko uztailaren 31n amaituta, edo bestela, esleipendunak eskainitakoa, laburragoa edo aurrekoa bada, beti ere esandako amaitzeko data errespetatuz.

2014ko ekainean antzokian langileak, agertokiko ekitaldiak eta ikusle jendea egongo direnez, lanek, inolako kalte, eragozpen edo eraldaketarik gabe utzi beharko dute haien jarduera normaltasunez egiten.

2014ko ekain horretan lanak 08:00etatik 18:00etara bitartean bakarrik egin ahal izango dira, eta uztailean Arriaga antzokiaren berezko jarduerak ez du ordu mugarik jarriko kontratuaren xede diren lanak egiteko.

Esleipendunak antzokiko girotze sistemaren funtzionamendua bermatuko

du lanek irauten duten aldi guztian, 2014ko uztaileko hirugarren astean izan ezik, orduan sistema itzali ahal izango baita, tresna berriak ipini eta konektatzeko.

Nolanahi ere, 2014ko abuztuaren 1etik aurrera girotze sistema berria zerbitzu bete-betea emateko moduan funtzionatzen egongo dela bermatzen du esleipendunak.

Lehiatzaileek Arriaga antzokiari egingo dizkioten eskaintzetan lanak egiteko plan bat sartuko dute, lanok egiteko prozesua eta hurrenkera adierazteko, eta lanaren hasiera eta amaiera esateko; esandakoa ezelako aitzakiarik gabe bete beharko da.

Enpresa esleipendunak gutxienez eta lanaldi osoan etengabe langune ezberdin bi eduki beharko ditu ekainean eta hiru langune ezberdin uztailean, kontratuz ezartzen den epe orokorra beteko dela ziurtatzeko.

Lanak egiteko esleipendunak eskainitako epeak betetzen ezinbestekoa ez den ezergatik berandutzea ez da onartuko, eta hori ere behar bezala justifikatu eta Zuzendaritza Teknikoak eta Arriaga Antzokiaren Zuzendaritzak onartu ondoren. Esleipendunaren eta Zuzendaritza Teknikoaren arteko ezadostasun teknikorik ere ez da onartuko berandutzeko, ezta horregatik lanak geldiarazi behar badira ere, beti ere aplikatu beharreko lege eta arau xedapenak, proiektuan eta kontratuan jaso eta zehaztutakoa edo Zuzendaritza Teknikoak bere eskumenen esparruan emandako aginduak esleipendunak betetzen ez dituelako geldiarazi badira lanok.

3. KONTRATUAREN BALIO BEGIETSIA.

Kontratuaren balio begietsiak, SPK Lan jasotakoaren ondorioetarako, **709.239,95 €** jotzen du (BEZ KANPO).

Lehiaketaren oinarri aurrekontuak **709.239,95 €** jotzen du (BEZ KANPO), eta hortik behera egingo dira eskaintzak.

Enpresa lehiatzaileek 2. eranskinean ageri den proposamen ereduaren arabera aurkeztuko dituzte eskaintza ekonomikoak.

Arriaga antzokiak berarentzat gordetzen du kontratuaren gehieneko gastu aurrekontua gora edo behera aldatzeko balizko aukera, gastuko aurrekontu doikuntza egokia onartuta, "Kontratuaren aldaketa" atalean adierazten diren mugen barruan.

4. ENPRESA SAILKAPENA

Kontratu honetan lehiatu ahal izateko, lan kontratista sailkapena eskatzen da J taldeko 2 azpitaldean, E kategorian.

5. ORDAINTZEKO MODUA.

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, esleipendunak faktura bi aurkeztuko ditu Arriaga antzokiaren adostasunarekin:

- Lehena, Zuzendaritza Teknikoak ekainaren 30eko datarekin izenpetzen duen ziurtagiriko kopurukoa.
- Bigarrena, lanak amaitu eta lanen harrera egitean Zuzendaritza Teknikoak izenpetzen duen likidazioko kopurukoa.

6. PREZIOAK BERRAZTERTZEA.

Kontratu honetan ez da preziorik berraztertuko.

7. BEHIN BETIKO BERMEA.

Kontratua esleitzen zaion enpresa, hartutako eginbeharrak betetzea ziurtatze aldea, behartuta dago esleipenaren zenbatekoaren % 5 Arriaga antzokiaren aldeko behin betiko bermetzat eratzera.

Berme hori eratzeko epea hamabost egutegi egunekoa izango da kontratuaren esleipena jakinarazten den egunaren biharamunetik zenbatuta, eta SPKLTBan ezarritako edozein modutan eratu ahalko da.

Lege horretan xedatutakoaren arabera itzuliko dira eraturako berme osoak eta, badaude, partzialak, berme epea mugaeguneratu eta esleipendunak kontratuzko eginbehar guztiak betetakoan.

Kontratua aldatzearen ondorioz kontratuaren prezioa garestitzen bada, proportzio berean handituko da fidantzaren kopurua.

8. KONTRATUA BETETZEA.

Kontratua kontratistaren kontura eta bere arriskupean beteko da.

Kontratua agiri honetan jasotzen diren klausulen menpean beteko da, eta, kasua bada, proiektuan jasotzen diren zehaztapen teknikoen menpean, eta horiek interpretatzeko Arriaga antzokiak eta lanen Zuzendaritza Teknikoak ematen dituen jarraibideen arabera.

9. ESLEIPENDUNAREN FUNTSEZKO EGINBEHARRAK.

- OROKORRAK: Enpresa esleipendunaren kontura dira kontratatutako lanak guztiz burutzeko behar diren gastu guztiak: Kontratua prestatzeko eta formalizatzeko izapideak, materialak eta instalazioak, baliabide instrumentalak, eskulana, Gizarte Segurantzza,

zergak, orotariko erantzukizun eta aseguruak, eta enpresa esleipendunari dagozkion edozein motatako zor eta eginbeharrak; behin betiko esleipenaren unetik beretzat hartzen ditu horiek guztiak eta kontratutik edo lehiaketan parte hartzetik sortzen diren beste guztiak.

Enpresa esleipendunari dagokio kontratua betetzeko behar diren baimen eta lizentzia ofizial nahiz partikular guztiak lortzea.

Enpresa esleipenduna izango da egiten dituen lanen kalitate teknikoaren eta emandako prestazio eta zerbitzuen arduraduna, eta kontratua betetzerakoan izandako ez egiteek, akatsek, metodo ezegokiek edo okerreko ondorioek Arriaga antzokiari edo hirugarren pertsoneri eragindako ondoreen erantzule izango dira.

Enpresa esleipendunak, berme epea igaro arte, kontratatutako lanak ondo egitearen eta horietan leudekeen akatsen erantzukizuna izango du, eta ez da salbuetsita geratuko eta ez dio inolako eskubiderik emango Arriaga antzokiaren arduradunek amaiera baino lehen aztertu edo ezagutu edo frogantza, balioespen edo ziurtapen partzialetan onartu izanak.

Enpresa esleipendunak kontratua ondo garatu eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eman beharko ditu, ordainketa gehigarriak jasotzeko eskubide barik, hala nola lan bileretara joatea, berri ematekoetara eta abar. Eginbehar hori bermealdia amaitu arte bete beharko da.

Lanak, tresnen instalazioa eta gainerako beharrak egin eta akabera, garbitasun eta funtzionamendu egoera akatsgabean eta arautegiak, udal ordenantzak, ingurumen ordenantzak UNE arauak eta aplikatu beharreko guztiak beteta geratuko dira. Egindako lanean nabaritzen diren akats eta deformazio guztiak konpondu behar ditu, bere konturam, enpresa esleipendunak.

Enpresa esleipendunak antzokiaren Zuzendaritzak eta Zuzendaritza Teknikoak aurretiaz baimendutako antzokiko lekuak erabili ahalko ditu, lanak egiten diharduen bitartean, materialak bildu eta edukitzeko. Enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da materialak edo lanabesak galdu edo ostea.

Enpresa esleipendunak materialak bildu eta edukitzeko esparruko guneak erabili ahalko ditu, lanak egiten diharduen bitartean. Enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da materialak edo lanabesak galdu edo ostea.

- **TEKNIKOAK:** Enpresa esleipendunak kontratua betetzearen ardura izango duen pertsona bat izendatuko du, etengabe lokalizagarri egongo dena eta eskatzen zaion bakoitzean obrara joateko prestasun osoa izango duena, eta, gutxienez, astean behin.
- **LANEKOAK:** Enpresa esleipenduna lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasun eta higienearenean indarrean dauden lege xedapenak betetzera behartuta dago, eta Arriaga antzokia ez betetze horien erantzukizunetik libre dago.

Enpresa esleipendunak nahikoa langile izan beharko ditu eta kontratu hau betetzeko egin behar diren zereginetarako gaituta.

Enpresa esleipendunak, aurreko lerrokadan esandakoa beteta, bere langileen beharrak berak bakarrik zehaztuko ditu. Edozelan ere, eman beharreko zerbitzuak garaiz eta eraz burutzeko gaitasuna erakusten duen giza talde ondo koordinatu bat eduki beharko du.

Arriaga antzokiak ez du zuzeneko erantzukizunik ez erantzukizun solidariorik izango enpresa esleipendunaren lan arloko eginbeharrak betetzea dela eta, ez

eta, kasua bada, lan kontratuen iraungipenetik eratortzen den erantzukizunik, ez kontratu honen indarraldian ez amaitu ondoren, enpresa esleipendunak hartzen baititu bere gain horietatik eratortzen diren lan arloko ondorio juridiko guztiak.

Arriaga antzokiak zerbitzuak ematen dituen enpresa esleipenduneko langileekiko ere ez du lan harreman juridikorik izango.

- **LANEKO ARRISKUEN AURREZAINZA:** Enpresa esleipendunak, nolahi ere, laneko arriskuen aurrezaintzaren arloan indarrean dagoen legeditik eratortzen diren eginbehar guztiak bete beharko ditu, kontratu honen ondorioz garatutako jardueratik eratortzen diren laneko arriskuen aurrezaintza arloan indarrean dagoen araudia egoki aplikatzeko legez ezarritako bideak antolatuko ditu, eta enpresa esleipenduna izango da eginbehar horiek betetzeko arduradun bakar-bakarra, eta beraz horiek ez betetzetik edo txarto betetzetik erator litezkeen ondorioen erantzule bakar-bakarra.
- **DATU PERTSONALAK:** Kontratua betetzeko beharrezkoa izan liteke enpresa esleipendunak tratamendu automatizatu behar duten datu pertsonalak erabiltzea; hori gertatzen denean, datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta otsailaren 25eko 2/2004 Legean xedatutakoa eta xedapen horiek garatzeko arauak beteko dira.

Enpresa esleipendunak ezin izango ditu aplikatu edo erabili kontratuagatik jaso dituen datu pertsonal automatizatuak kontratuan ezartzen den helbururako ez bada.

Kontratu prestazioa betetakoan, tratatutako datu pertsonalak Arriaga antzokiari eman beharko zaizkio. Enpresa esleipendunak berarenak suntsitu beharko ditu, geroago zerbitzu emateko posibilitateagatik Arriaga antzokiak baimen idatzia ematen ez badio; emanaz gero, bost urterako biltegitatu ahalko dira, beharrezko segurtasun neurriekin.

- **ISILPEKOTASUNA:** Enpresa esleipendunak kontratatutako zerbitzuakatik ezagutzen dituen datu guztiak isilpekoak dira, eta horien identitatea eta sekretua gorde behar du. Sekretu profesionala hausteagatik kalte eta galerak eragin bazaizkie Arriaga antzokiari edo hirugarrenei enpresa esleipendunak kalte-ordaina eman beharko die.
- **KONTRATUA BETETZEKO HIZKUNTZA BALDINTZAK:** Kontratu hau Euskal Herriko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan jasotzen duen ofizialtasun bikoitzaren menpean, euskararen erabilpena arauzkotzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarriko Legeak araututa eta garatzen duen araudiaren menpean dago; beraz, kontratua esleitu zaion enpresak eta izan litezkeen subkontratatistek, euskara eta gaztelania, hizkuntza bien koofizialtasuna kontuan hartu beharko dute kontratua betetzerakoan, eta euren jarduera elebitasun irizpideei eta herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeari lotuta egongo da. Hizkuntza eginbeharrak kontratua betetzeko baldintzetako bat dira, eta, bete ezean, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik orokorrean ezarrita dauden ondorio berak jasango dira.

10. HARRERA ETA BERME EPEA.

Lanak amaitutakoan, Zuzendaritza Teknikoak txosten bat egingo du lanon egikera zuzenaz; baiezkoa bada Harrera Akta izenpetuko dute Zuzendaritza Teknikoak esleipendunak eta Arriaga antzokiaren arduradunek.

Urte biko berme epe bat ezartzen da, Harrera Akta formalizatzen denetik

zenbatuta, obretarako eta kontratu honetako gainerako lanetarako; epe horretan Arriaga antzokiak, Zuzendaritza Teknikoak lagunduta edo bere baliabideak erabilia, egindako lana kontratatutakoari eta agiri honetan hitzartutakoari lotzen zaion egiaztatu ahal izango du.

Bermealdian, egindakoan nabaritzen diren akats guztiak konpondu beharko ditu esleipendunak, bere kontura, agiri honetan eta SPKLTBaren 235. artikuluan ezarritakoaren arabera bereganatzen dituen erantzukizunetatik eratorzen diren ondorioak gorabehera.

Epe hori Arriaga antzokiak eragozpenik jarri gabe igarotakoan, iraungita geratuko da enpresa esleipendunaren erantzukizuna eta agiri honetan ezarritakoaren arabera jarri den bermea itzuliko da.

11. EGINBEHARRAK EZ BETETZEA ETA ZIGORRAK.

Kontratutik eratorzen diren eginbeharrak ez betetzeagatik, enpresa esleipendunari entzun ondoren, zigor ekonomikoak ezarriko dira, eta dagozkien ziurtagirietatik kenketa automatikoki eginda ordainduko dira.

Ez betetzeak, larritasunaren, zerbitzurako duen garrantziaren eta Arriaga antzokiari eragiten dizkion kalteen arabera, oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

Kontratuko baldintza edo eskainitako hobekuntza bat edo gehiago ez betetzeagatik zigortu egingo da enpresa esleipenduna:

a) Ez betetze oso larriak dira:

- Eskaintzan jasotako baldintzak eta proposamenak ez betetzea.
- Arriaga antzokiaren irudiari eta/edo jendearentzako zerbitzu prestazioari oso kalte larria egiten dion atzerapena lanak egiterakoan.
- Enpresa esleipendunari eska dakizkiokeen prestazioak eta/edo eginbeharrak modu larrian eta/edo behin eta berriro ez betetzea.
- Kontratutik edo Zuzendaritza Teknikoak ematen dituen jarraibide edo aginduetatik eratorzen diren eginbeharrak egitez edo ez egitez ez betetzea, horren garrantziagatik lanak egiten berandutzea, garestitzea edo hirugarrenek kalte fisiko edo ekonomikoak jasatea badakarte.
- Giroitze instalazioaren funtzionamendu akastuna.
- Kontratua osorik edo zati batean hirugarren bati lagatzea, aurretiaz baimena izan gabe.
- Arraza, sexu, erlijio, hizkuntza edo iritziagatik bereizkeria dakarren

ekintza oro.

- Hiru arau-hauste larri egitea.

b) Ez betetze larriak dira:

- Kontratutik edo Zuzendaritza Teknikoak ematen dituen jarraibide edo aginduetatik eratortzen diren eginbeharrak egitez edo ez egitez ez betetzea, horren garrantziagatik arau-hauste oso larria ez bada.
- Arau-hauste arin bi egitea.

c) Ez betetze arinak dira:

- Enpresa esleipendunari eska dakizkiokeen eginbeharrak betetzerakoan arduragabekeria edo zabarkeria onartezina izatea.

ZIGORRAK: Enpresa esleipendunak arau-hausteak eginaz gero zigor ekonomiko hauek ezarri ahalko zaizkio:

a) Arau-hauste oso larriak:

- Lanak egiten atzeratuaz gero, berandutzen den egutegi egun bakoitzeko kontratuaren zenbatekoaren % 5eko kenketa.
- Gainerako kasuetan, kontratuaren zenbatekoaren % 5eko kenketa arau-hauste oso larri bakoitzagatik.

b) Arau-hauste larriak:

- Kontratuaren zenbatekoaren % 1eko kenketa ekonomikoa arau-hauste bakoitzagatik.

⇨ Arau-hauste arinak:

- Kontratuaren zenbatekoaren % 0,2ko kenketa ekonomikoa arau-hauste bakoitzagatik.

Arriaga antzokiko lehendakaritzari edo ordezkari izendatzen duen organoari dagokio kontratua ez betetzeagatik zigorrak jartzea.

Enpresa esleipendunak ez betetze larriak edo oso larriak egiten baditu, Arriaga antzokiak aukeratu ahal izango du kontratua desegin edo goian jasotzen diren zigorrak ezarri, bata zein bestea.

Enpresa esleipendunaren ordainagirietan kenketa egitea izango da zigorrak ordaintzeko bide lehenetsia.

Zigorrak ez diote kentzen enpresa esleipendunari zerbitzu prestazioaren

ondorioz hirugarren pertsoneri eta/edo Arriaga antzokiari eragiten zaizkien kalte eta galeren erantzukizuna, eta haren kontura izango dira kalte eta galera horiekatik eman beharreko kalte-ordainak.

12. KONTRATUA DESEGITEKO KAUSAK.

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoak kontratua desegiteko kausa dira.

II.- KONTRATATZEKO PROZEDURA

13. KONTRATATZEKO GAITASUNA.

Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna osorik dituzten pertsona natural edo juridikoek hartu ahalko dute parte prozedura honetan, SPKLaren 60. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetan ez badaude.

Nolanahi ere lehiatzaileak kontratu honen zehaztapen teknikoetan esaten den sailkapena eduki beharko du.

Halaber, eurak zuzenean edo ordezkaria notario aurrean horretarako ahalorde askietsiaren bidez baimenduta aurkeztu ahalko dira. Pertsona juridiko baten ordezkari izan kide bat aurkezten bada, horretarako ahalmena duela agiri bidez justifikatu beharko du. Bai kasu batean bai bestean, aipatu diren kontratatzeko ezgaitasun kausaek eragiten diote ordezkariari.

Gainera, lehiatzaileek kontratu honen xedearekin zerikusi zuzena duten jarduerak egitea izan beharko dute helburu, eta kontratua behar bezala betetzeko nahikoa elementu pertsonal eta materialez hornitutako antolakuntza bat izan beharko dute.

14. PROPOSAMENEN AURKEZPENA.

Proposamenak Arriaga antzokian aurkeztuko dira, Arriaga plazako 1 zenbakian, 48005 Bilbo, tel. 944163533, 09:00etatik 14:00etara, **HOGIITA SEI EGUTEGI EGUNEKO** epean, BIZKAIKO ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatuta.

Lehiaketari buruzko galderak idazki erreferentziadunean bidaliko dira helbide elektronikoko honetara: direccion@teatroarriaga.com. Galderak aurkezteko epea eskaintzak aurkezteko azken eguna baino sei egun lehenago artekoa izango da.

Lehiatzaileekiko komunikazioa posta elektronikoz egingo da, proposamenean eman beharko baitute, nahiz eta, legeak agintzen duenean, egintza juridikoen publizitatea egin.

Kontratazio honen dosierra, eta hari atxikitako dokumentazio teknikoa, Arriaga antzokiaren egoitzan aztertu ahal izango dute, bederatzietatik hamalauetara, astegun guztietan, iragarki hura argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta proposamenak aurkezteko epea mugaeguneratu arte.

Geroago aurkeztutako proposamenak ez dira onartuko, nahiz eta postetxean epea amaitu baino lehen aurkeztu zirela frogatu, ez bada postaz bidali den egun berean bidaltzen Kontratazio Organora telexez edo telegramaz eskaintzaren bidalketa egunaren justifikazioa.

Proposamena eman eta onartu ondoren enpresa lehiatzaileak ezingo du atzera egin, kausa justifikatuak salbu, ezingo du besterik aurkeztu, ez bakarka ez beste enpresa batzuekin aldi baterako batuta, eta ezingo da agertu aldi baterako batasun batean baino gehiagotan. Aurrekoa ez betetzeak hark aurkeztutako proposamen guztiak ezestea ekarriko du.

Lehiatzaileek **hiru gutun-azal itxi (A, B eta C)** aurkeztu beharko dituzte, bakoitza nahitaez datu hauekin identifikatuta:

GUTUN-AZALA: (A, B edo C)
DOKUMENTAZIOA:
KONTRATAZIO HONETAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA:

Baltzu izena:
IFK:
Baltzu helbidea:
Ahdunaren izen-abizenak:

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK
Helbide elektronikoa:
Harremanetarako telefonoa:
Faxa:

"A" gutun-azalaren azpтитulua **"DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA"** izango da, eta kontratatzeke baldintzak betetzearen zinpeko adierazpenaren agiria sartuko da barruan.

Esleipen proposamena erabaki aurretik, lehiatzaileei legez eskatzen diren baldintzak betetzen direla egiaztatzeke dokumentazioa aurkezteke eskatu ahalko zale, eta baztertuta geratuko dira behar den dokumentazioa aurkezten ez dutenak.

"B" gutun-azalaren azpтитulua **"FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATZERIK**

EZ DAGOEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA", eta dokumentazio hau sartuko da barruan:

- B 1. Lanak egiteko plana, antzokiaren gune bakoitzean denboran eta fisikoki nola garatuko den xehetasunik handienarekin azalduta. Jarduera guztien sekuentzia eta iraupena xehe emateko irudiak aurkeztuko dira, obraren zati bakoitza egiteko epe partzialak eta horien bata bestearerikiko menpekotasunak adierazita.
- B 2. Giza baliabide eta taldeak eta baliabide eta tresna teknikoak, lanak egiteko erabiliko direnak, antzokiaren gune bakoitzean emango duten denbora eta banaketa fisikoa azalduta. Obra esparruaren kokagunea, horniketa gunea eta tresna eta instalazio bakoitza ordeztu eta ipintzeko erabiliko diren sistema eta baliabide lagungarriak ere zehaztuko dira.
- B 3. Saldu ondoko laguntza teknikoa, kontratua arautzen duten agirietan eskatzen denetik haratago.
- B 4. Pertsona arduraduna, kontratua betetzeko ardura duena, identifikatuta, egoitza eta curriculum vitae osoa eta harremanetarako bidea barne.
- B 5. Enpresaren gaikuntza azken 5 urteetan egindako antzeko lanetan, eta, kasua bada, hori justifikatzeko dokumentazioa.
- B 6. Proiektuaren ezagutza, enpresa lehiatzaileak egin beharrekoaz dakiena, aurkeztutako proposamenen eta dokumentazioaren arabera.

"C" gutun-azalaren azpizitua "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA", eta 2. eranskinen emandako ereduaren arabera proposamena edukiko du.

Nolanahi ere, ez dira onartuko proposamen hauek:

- 1. Eskaintza ulertzeko Arriaga antzokiak funtsezkotzat jotzen duena argi jakitea galarazten duten kontraesanak, ez esateak, akatsak edo zirriborrateak dituztenak.
- 2. Proiektuaren, agirien eta kontratu hau arautzen duten gainerakoen dokumentazioarekin bat ez datozenak.
- 3. Gehienezko lehiaketa tasa gairiditzen dutenak.
- 4. Proposamenaren kopuruan akats nabarmena dutenak.
- 5. Agiri honen 2. Eranskin gisa ageri den proposamen erdua funtsean aldatzen dutenak.
- 6. Lehiatzaileak aitortutako akatsak edo funtsik ezak bideraezina bihurtzen dituenak.

Letratan azaldutako eskaintza ekonomikoaren eta zenbakitan azaldutakoaren artean ezadostasunik badago, letratan jartzen duena izango da balioko duena (lehiaketa tasa gainditzen duen bakarra kopuru hori bada izan ezik), ez badu Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen, dokumentazioa aztertu ondoren irizpide arrazionalak erabilita.

Jasota geratzen da eskaintza ekonomikoaren kontaketa akatsak zuzendu egingo direla. Eskaintzak baztertzea ez dakarten kontraesanak badaude, Arriaga antzokiari gehien komeni zaiona hartuko da kontuan.

Agiri honen eranskinetan ezarritako eredia aldatzen duen eskaintza aurkeztuaz gero lehiaketatik baztertuta gera daiteke.

Lehiatzaile bakoitzak ezingo du proposamen bakar bat baino gehiago aurkeztu.

Zirrimarrak/Agiriak aurkeztu badira, Arriaga antzokiaren jabetzakoak izatera igaroko dira, eta antzokiak hitza ematen du ez direla beste ezertarako erabiliko lehiaketa honen ondorio hutsetarako eta artxibatzeko baino.

15. PROZEDURA, PUBLIZITATEA ETA ESLEITZEKO MODUA.

Kontratu hau **prozedura irekiz** eta zenbait irizpidetan oinarrituta esleituko da, Bilboko Udalaren, www.bilbao.net, eta/edo Arriaga antzokiaren, www.teatroarriaga.com, kontratatzaile profilean eta BIZKAIKO ALDIZKARI ofizialean argitaratuko da.

Agiriak kontratatzailearen profilean lortuko dira.

Lehiaketa esleitzeko balio behar duten irizpideak hauek dira:

- **Formula bidez kuantifikatzerik ez dagoen irizpideak:** 49 punturaino.
- **Formula bidez kuantifika daitezkeen irizpideak:** 51 punturaino.

FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATZERIK EZ DAGOEN IRIZPIDEEN BALIOESPENA

Lehiatzaile bakoitzak bere eskaintzaren "B" gutun-azalean aurkeztutako dokumentazioaren arabera aplikatuko dira formula bidez kuantifikatzerik ez dagoen irizpideak, proposamen bakoitza alderdi horietako bakoitzean balioetsita eta parametro hauen arabera:

B 1. Lanak egiteko plana. Gehienez 24 punturaino balioetsiko dira, besteak beste, egiteko planaren xehetasuna eta garapena, koherentzia, eta eskaintzan emandako epeak betetzearen justifikazioa.

B 2. Giza baliabide eta taldeak eta baliabide eta tresna teknikoak, lanak egiteko erabiliko direnak. Gehienez 13 punturaino

balioetsiko dira, besteak beste, erabili beharreko baliabideen xehetasuna eta koherentzia, obra eta horniketa esparruen definizioa eta egokitasuna, eta tresna eta instalazio bakoitza ordeztu eta ipintzeko erabiliko diren sistema eta baliabide lagungarriena.

- B 3. Saldu ondoko laguntza teknikoa. Gehienez 4 punturaino balioetsiko da saldu ondoko laguntza teknikoa, kontratua arautzen duten agirietan eskatzen denetik haratagokoa.
- B 4. Kontratua betetzeko ardura duen pertsona. Gehienez 4 punturaino balioetsiko dira, besteak beste, lehiatzaileak izendatutako arduradunaren kualifikazio profesionala, gaitasuna eta Arriaga antzokitik bere ohiko bizilekuak duen hurbiltasuna.
- B 5. Enpresaren gaikuntza antzeko lanetan. Gehienez 2 punturaino balioetsiko da, besteak beste, enpresa lehiatzaileak azken 5 urteetan antzeko lanetan duen gaikuntza, behar bezala egiaztatua.
- B 6. Proiektuaren ezaqutza. Gehienez 2 punturaino balioetsiko da, besteak beste, enpresa lehiatzaileak egin beharreko proiektuaz dakiena, bere eskaintzaren "B" gutun-azalean aurkeztutako proposamenen eta dokumentazioaren arabera.

SPKLTBaren 150.4 artikulua arabera, balioespen globalean onartzeko, formula bidez kuantifikatzerik ez dagoen irizpideetan gutxienez 24,5 puntuko atalasea iristea eskatuko da, eta puntuazio atalase horretara heltzen ez diren eskaintzak ez ditu kontuan hartuko Kontratazio Mahaiak.

FORMULA BIDEZ KUANTIFIKA DAITEZKEEN IRIZPIDEEN BALIOESPENA:

Lehiaketa prezioaren beherako hobekuntzak egin ahalko dira, eta horiek puntu bilakatuko dira formula honen arabera:

Puntuazioa tarte hauen arabera emango da:

1. tartea: baldin ($E_{Leh} \geq A_{Aus}$), orduan honen arabera emango dira puntuak:

$$P_{Leh} = (A_{Aus} / E_{Leh}) \times T_1$$

2. tartea: Baldin ($E_{Leh} < A_{Aus}$), eta onargarriztat jo da, orduan eskaintza honela balioetsiko da:

$$P_{Leh} = T_1 + T_2 \times (1 - (E_{Leh} / A_{Aus}))$$

Non

E_{Leh} : lehiatzailearen eskaintza ekonomikoa

E_{Bb} : aurkeztu eta onartutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa

A_{Aus} : ausarkeriazko atalasea; kasu honetan, aurkeztu eta onartutako eskaintzen batez bestekotik **ehuneko 10 unitate baino gehiago** jaisten den kopurua $A_{Aus} = \% 90 \times E_{Bb}$

P_{Leh} : lehiatzailearen puntuazioa

T_1 : lehen balioespen tarteari dagozkion puntuak

$$T_1 = \% 95 \times \text{Puntu}_{Max}$$

T_2 : bigarren balioespen tarteari dagozkion puntuak

$$T_2 = \text{Puntu}_{Max} - T_1$$

$$\text{Puntu}_{Max} = 51 \text{ puntu}$$

Eskaintzek balio anormalak edo proportziorik gabeak dituztela joko da baldin onartutako eskaintzen batez besteko aritmetikotik ehuneko hamar unitate baino gehiago jaisten bada kopurua. Balio anormalak edo proportziorik gabeak dituzten eskaintzen kasuan SPKLTBaren 152.3 artikuluan jasotako prozedura jarraituko a justifikatzeko.

16. PROPOSAMENEN IREKIERA ETA KONTRATAZIO ORGANOAREN JARDUERA

Eskaintzak balioesteko eskumena duen organoa Arriaga antzokiaren Kontratazio Mahaia da. Jendaurreko ekitaldiak hemen egingo dira:

Tokia: Prentsa aretoa, 1. solairua. Arriaga antzokia. Arriaga plaza 1. 48005

Bilbo

- a) Kontratazio Mahaiaren lehen ekitaldia: A gutun-azalaren irekiera.

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, Kontratazio Mahaiak lehenik eta behin garaiz eta eraz aurkeztutako "DOKUMENTAZIO ADMINISTRATIBOA" A GUTUN-AZALEAN dauden agiriak kalifikatuko ditu, bilkura pribatuan.

Kalifikazio horren ondorioetarako, gutun-azal hori irekiko da. Aurkeztutako agirian akats materialak nabaritzen baditu Mahaiak interesdunei jakinaraziko die eta hiru astegun baino gehiagokoa ez den epe bat emango die lehiatzaileak akatsa konpon dezan.

Baina lehiatzaile baten dokumentazioak funtsezko akatsak edo huts material konponezinak baditu, ez da onartuko lehiaketan.

- b) Kontratazio Mahaiaren bigarren ekitaldia. B gutun-azalaren irekiera.

Kontratazio Mahaia berriro eratuko da, eta aurkeztutako dokumentazioaren akatsak edo hutsuneak, kasua bada, konponduta, "FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATZERIK EZ DAGOEN IRIZPIDEAK" B GUTUN-AZALA irekiko da. Onartutako proposamenak balioetsiko ditu, baztertutakoak eta baztertzearen kausa edo kausak.

- c) Kontratazio Mahaiaren hirugarren ekitaldia. C gutun-azalaren irekiera.

Kontratazio mahaia eratutakoan, jendaurreko ekitaldian, lehenik eta behin hautaketa prozesuan jarraitzen duten proposamen onartuek FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATZERIK EZ DAGOEN IRIZPIDEAK balioetsita lortutako puntuazioa jakinaraziko da eta gutun-azal horietan dauden eskaintza ekonomikoak irakurriko dira.

- d) Kontratazio Mahaiaren laugarren ekitaldia. Esleipen proposamena.

Kontratazio Mahaiak esleipen proposamena formulatuko dio kontratazio organoari eskaintzen ebaluazio globala egin ondoren.

17. ESLEIPENA, AGIRIEN AURKEZPENA ETA FORMALIZAZIOA.

Proposamenak irekitzen diren egunaren biharamunetik hastia hilabete biko gehienezko epean egingo dira esleipenak.

Kontratua Kontratazio Organoak egiten duen esleipenaren bidez gauzatuko da.

Kontratazio Organoak lehen instantzian esleipena hartzen duen

lehiatzaileari ondorengo dokumentazio hau aurkezteko eskatuko dio, hamar asteguneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatuta:

1) **Dokumentazio administratiboa**, legean eta agiri honetan kontratatzeko eskatzen diren betekizunak justifikatzen dituena.

1.1) **Nortasun Agiri Nazionala**, lehiatzailearena edo bere ordezkariarena. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkari izan jardunaz gero, notario aurreko ahalordea.

1.2) **Eratze eskritura, estatutuak edo fundazio akta**, haren jardura arautzen duten arauak jasotzen dituena, behar bezala inskribatuta, kasua bada, dagokion erregistro publikoan, eta **identifikazio fiskaleko zenbakia**, lehiatzailea pertsona juridiko bat denean.

1.3) Eskatzen den **kontratista sailkapena** egiaztatzeko agiria.

Kontratu honetarako, J taldeko 2 azpitaldean E kategoriako sailkapena eskatzen da.

1.4) **Foru Ogasunak edo Ogasunek** jaulkitako baieztoko ziurtagiria eta/edo, kasua bada, Zerga Administrazioaren Estatu Agentziak emana, zerga eginbeharrak betetzen egunean dagoela egiaztatzeko.

1.5) **Gizarte Segurantzarekiko** eginbeharrak betetzen egunean dagoela egiaztatzeko baieztoko ziurtagiria edo, kasua bada, dagokion Mutuako alta.

DOKUMENTAZIOA AURKEZTEARI BURUZKO OHAR ARGIGARRIAK

1. OHARRA: LEHIATZAILEEN ERREGISTROKO ZIURTAGIRIAREN BIDEZ EGIAZTATZEA: Euskal Autonomia Erkidegoko edo Bizkaiko lurralde historikoko Kontratisten Erregistroko inskripzioa egiaztatzeko indarrean dagoen ziurtagiria aurkeztu ahalko da, edo Estatuaren Lehiatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialekoa (kasua bada), edo Europar Batasuneko sailkapen ziurtagiria, hain zuzen jarduteko gaitasuna, ordezkari izan, zinpeko deklarazioa eta kontratista sailkapena egiaztatzeko eta zergekiko eta/edo Gizarte Segurantzarekiko eginbeharrak betetzen egunean dagoela egiaztatzeko balio baitu, Aurkeztu den ziurtagirian jasotzen ez diren zertzeladez, eskatzen den egiaztapen agiria erantsiko da.

Nolanahi ere, ziurtapen honi dagokion ziurtagirian jasotzen diren zertzeladak eskaintza aurkezteko unean aldaketarik jasan ez dutela adierazten duen lehiatzailearen zinpeko adierazpena erantsi beharko zaio.

2. OHARRA: enpresa lehiatzaileak notario aurreko agiria aurkeztu beharko du, legeztatzeaz eta zilegitzeaz legeak eta notario erregelamenduak ezartzen dituzten betekizunetara egokituta. Administrazio agiriaren kasuan, jatorrizkoa, kopia edo fotokopia aurkeztu ahalko dira.

3. OHARRA: antzokiak hasitako lehiaketa batean parte hartu duten eta, horren ondorioz, eratze edo aldatze eskritura publikoak, ahalorde agiriak, edo horien kopia konpultsatuak, eta ordezkari izan ahalordeak eskatutako baldintzetan aurkeztu dituzten merkataritza erakundeek agiri horiek berriro aurkeztu beharrik gabe hartu ahal izango dute parte hurrengo sei hilabeteetan deialdia egiten zaien lehiaketetan, agiriak uneko

errealitatera egokituta ez badaude izan ezik. Horretarako, eskaintza bat aurkezten dutenean, dokumentazio hori aurkeztu zuten lehiaketa izendatuko dute. Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako, kontratazio prozeduren deialdien argitalpen egunei begira zenbatuko da sei hilabeteko epea.

4. OHARRA: Arriaga antzokiak ez du agiririk konpultsatzen, eta ematen zaizkionak ez ditu itzuliko. Beraz, lehiatzaileak abisatuta daude izapide guztiak osatu beharko dituztela proposamenak aurkeztu aurretik.

2) **Behin betiko bermea.**

3) **Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren uneko ekitaldiko alta edo azken ordainagiria,** zerga horren matrikulan baja ez hartu izanaren zinpeko adierazpenarekin osatuta. Zerga horretatik salbuetsita egonaz gero, zerga horren matrikulan baja ez hartu izanaren zinpeko adierazpena aurkeztuko du eta salbuespen kasua aipatuko du.

Esleipenduna aldi baterako enpresa batasuna bada, batasunaren formalizazio eskritura publikoa aurkeztu beharko du. Halaber, batasuneko kide bakoitzak Ogasun eta Gizarte Segurantzaren arloetako baiezko ziurtagiria eta Jarduera Ekonomikoen Zergari buruzko dokumentazioa aurkeztuko dute.

5) **Aseguru polizak eta primen ordainagiriak aurkeztu.**

Eginbehar hau ez betetzeak kontratua desegitea ekarriko du.

ASEGURU ETXEAREN ZIURTAGIRI bat aurkeztuko da kontratistak harpidetutako polizak ondoren jasotzen diren aseguru baldintzak betetzen dituela eta prima ordainketan egunean dagoela ziurtatzeko. Esleipendunak aseguru poliza hauek kontratatuko ditu bere kontura, eta hala edukiko ditu eraikitzen ari den bitartean eta kontratuaren berme epean:

5.1. Egindako obrak eta egiten ari direnak jasaten dituzten kalteak estaliko dituen aseguru, estaldura hauek barne: Suteak, tximistak, leherketak, lapurretak, indarrez ebasteak, talkak, trebetasun faltak, arduragabekeriak, ekintza bandalikoek eta asmo txarrekoek, izadiaren arriskuek eta/edo izenik gabeko beste edozein arriskuk eragindako kalteak.

Jatorria eraikuntza-aldian duen kausa baten ondoriozko galtze edo kalte oro aseguraturata egongo da, eta obra kontratuan hitzartutako eginbeharrak zuzen betetzeko burutzen diren lanak egitearren aldi horretan edo ondorengoetan eragiten direnak ere bai.

Kopuru aseguratuak, gutxienez, obraren balioa jo behar du.

5.2. Bermealdian indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguru, orokorra edo ustiapeneko, ugazabarena, gurutzatua eta lan amaituena, asegurudun moduan kontratista eta, kasua bada, subkontratista sartuta. Arriaga antzokiak aseguru gehigarriaren izaera izango du hirugarrenarena

galdu gabe.

Ustiapen erantzukizun zibilerako frankizia ez da izango 10.000 eurokoa baino handiagoa, eta kalte-ordainaren gutxieneko muga 600.000 euro izango da ezbeharreko, eta 150.000 baino txikiagoa ez den azpimuga izango du biktimako bai ustiapenekoean bai ugazabarenean.

Nolanahi ere esleipendunak jasango ditu kalteak eta galerak frankiziaren kopuruan, eta aseguru polizetan ezartzen diren mugak gainditzen dituzten guztian, bai eta horietan estalita ez dauden ondasun eta arriskueta ere.

Obrak begiz jotako eguna baino geroago amaitzen badira, behar diren luzapenak kontratatu beharko dira eta esleipendunak dagozkion gainprimak ordaindu beharko ditu.

Zuzenketa. Aurkeztutako dokumentazioan zuzentzeko moduko akats edo hutsak nabarituaz gero, interesdunari posta elektronikoz jakinaraziko zaio, eta hiru asteguneko baino luzeagoa ez den epea emango zaio akatsa zuzentzeko.

Ez betetzea. Epe horretan beharrezko dokumentazioa ez ekartzeak eskaintza baztertu egiten dela esan nahiko du, eta lehiatzailea prozeduratik kanpo geratuko da, eta hurrengo lehiatzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkera berean.

Faltsutasuna. Zinpeko adierazpen faltsua egin bada, administrazio honekin kontratatzeke debekua ezarriko zaio SPKLTBaren 60. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Azkenik, esleipendunari Arriaga antzokian agertzeko eskatuko zaio, kontratua formalizatzeko.

Kontratistari egoztekoak diren kausakatik formalizatzen ez bada kontratua, Arriaga antzokiak kontratua desegitea erabaki ahal izango du, interesdunari entzun ondoren, kalte eta galerak ordainduta.

Kontratua betetzen ezingo da hasi aurretiaz formalizatu ez bada, dosierraren izapideak urgentziaz edo larrialdian egiten direnean izan ezik.

III.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUMENDUNA

18. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA.

Agiri honetan oinarrituta egiten den kontratua pribatua izango da.

Kontratua agiri honetako klausulek arautuko dute eta, hutsuneetan:

- Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateratuak.
- Administrazioaren kontratazioa arautzen duten beste edozein xedapenek, bai estatukoak nahiz autonomia erkidegokoak eta tokikoak, eta toki eremuan aplikatzekoak direnak.
- Osagarri gisa, Administrazio Zuzenbideko gainerako arauak aplikatuko dira eta, hutsuneetan, Zuzenbide Pribatuko arauak.

Administrazio Klausulen Agiriaren eta dosierrean sartutako gainerako dokumentazio teknikoaren artean kontraesanik badago, agiri honetan xedatutakoak balioko du, gai eta zehaztapen teknikoetan izan ezik.

19. JURISDIKZIO ESKUMENDUNA.

Kontratuaren funtsari buruzko auziak jurisdikzio arruntean ebatziko dira. Hala ere, alderdiek euren arteko auziak arbitraje bidez konpontzea erabaki dezakete, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera.

1. ERANSKINA

ZINPEKO ADIERAZPEN EREDUA

..... jaunak/andreak,
helbidean eta DNI zk.
duenak, bere izenean edo (adierazi ordezkartza ahalmenak:
administratzaile bakar, ahaldu...) gisa
enpresaren ordezkartzan (enpresaren helbidea:
.....; IFK zk.; tel.
....., eta helbide elektronikoa),

BERE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DU:

a) Bera ordezkari duen enpresak legean eta kontratatzeke agiri honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituela eta Sektore Publikoaren Kontratu Legearen Testu Bateratuaren 60. artikuluan zerrendatutako kontratatzeke debekuetako bat ere ez duela.

b) Kontratazio organoak eskatzen duen edozein unetan prest dagoela betekizun horiek egiaztatzeke agiriak aurkezteke, eta, nolana ere, esleipen proposamena bere aldekoa bada, esleitu aurretik aurkeztuko dituela.

c) Lehiaketa honetan edozertariko errekerimenduak, komunikazioak eta jakinarazpenak legean ezarritako ondorio juridikoekin egiteke datuak hauek direla:

Harremanetarako pertsona:

.....

Helbidea PK

Herria

1. telefonoa: :.....

2. telefonoa: :.....

Fax zk.:

Helbide elektronikoa:

.....n,koarenn

Iz.:

Enpresaren zigilua

(ABEB kasuan aldi baterako enpresa batasuneko kide bakoitzak zinpeko adierazpen bat egingo du eta ondorengo adierazpena erantsiko da)

ABEB ADIERAZPEN EREDUA

..... jaunak/andreak,
helbidean eta DNI zk.
duenak, bere izenean edo (adierazi ordezkari-tza ahalmenak:
administratzaile bakar, ahaldu...) gisa
enpresaren ordezkari-tzan (enpresaren helbidea:
....., eta IFK zk.),
eta

..... jaunak/andreak,
helbidean eta DNI zk.
duenak, bere izenean edo (adierazi ordezkari-tza ahalmenak:
administratzaile bakar, ahaldu...) gisa
enpresaren ordezkari-tzan (enpresaren helbidea:
....., eta IFK zk.),

ADOERAZTEN DUTE

Formalki aldi baterako enpresa batasuna osatzeko konpromisoa hartzen dutela, hurrenez hurren % eta %ko partaidetzekin, eta batasunaren ordezkari edo ahaldu bakar izendatzen dutela, eskubideak egikaritzeko eta iraungi arte kontratutik eratortzen diren eginbeharrak betetzeko nahikoa ahalorderekin, jauna/andrea.

Eta egiten dugun adierazpen honen adostasun-erakusgarri
.....n,koarenn

Iz.:
Enpresaren zigilua

Iz.:
Enpresaren zigilua

2. ERANSKINA

Proposamen ekonomiko erdua

Nik,
jaunak/andreak, helbidean, PK, eta DNI zk.
..... dudanak, telefonoa, gaitasun juridikoa
eta jarduteko gaitasuna bete-betean ditudala, neure izenean (edo
.....en ordezkartzan –helbidea:);
PK:; telefonoa:, eta, pertsona fisikoa edo juridikoa den, DNI
edo IFK zk.:-), ARRIAGA ANTZOKIKO GIROTZE
INSTALAZIOA BERRITZEKO ETA SISTEMA BERRIA ABIARAZTEKO LANAK
kontratatzeko Arriaga antzokiaren deialdiko lehiaketaren berri izan dudanez,

NEURE ARDURAPEAN ADIERAZTEN DUT:

1.) Hitza ematen dudala kontratu hau
euroko prezioan egingo dudala, %ko BEZa aplikatuta
euroko kopurua gehituta, beraz prezio osoa euro
eta epea izango da (ipini letraz eta
zenbakiz).

Prezio horretan sartuta daude kontzeptu guztiak, zergak, gastuak, tasak eta
edozein zergagunetako arielak barne, eta kontratistaren irabazi industrialak ere
barne.

2.) Proiektua eta Administrazio Klausulen Agiria eta kontratu hau arautu
behar duen gainerako dokumentazioa ezagutzen dudala, eta berariaz onartzen eta
osorik neureganatzen dudala.

3.) Ordezkeri nauen enpresak indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen
irekiera, instalazio eta funtzionamendurako beharkizun eta eginbehar guztiak
betetzen dituela.

.....n,koarenn
Iz.:

Enpresaren zigilua